

EZ GAITEZAN LARRITU

Larri gabiz, aspaldion, benetako euskaldunok, larritzekoa da izan be-ta, bizkaierari alde guztietatik dagitsoen amurruzko eraso gogorraz arduratuta.

Bai Jaurlaritzan, bai Aldundietan eta erakunderik geienetan sartu dausku muxturra bizkaiera era, baita gipuzkerea be, apurtu ta ondatu guraz diardun amesetako euskera-erdera lorrin baizen kaltegarri orrek. Ziri pozpoitsu ori sartzen diarduenak ez dira askok uste daben añaako kopurua baiña zaratea ugari ateraten diardue toki guztietan; eta asko ez diranez, zaratea ugari egin bearra dabe euren gogai ta xede ganorabakoak zabalteko. Gure erria gogorra da, beste jokera guztietan danez, euskera arazuan; bestela izan izan ba'litz, oraingo kakoan genduken gure berbe-tea. Ziur nago, ba, aurrerantzean be gure erriak *bere* euskerea egiten jarraituko dauana erazo zital guztiak gora-bea. Ba'litc amesetako euskera zital ori erderaz bizi diran eta egundo be benetako euskaldun izango ez diran banaka buru-bero batzuen euskera gaiztoa izatea baiña ez, gero, gu lez beti euskeraz bizi gareanon izkuntzea. Orixe ez, gero!

Ondotxu dakigu, jakin be, zelako xede edo idealen zabal-tzaille diran euskera gaizto orren edatzailleak. Txarrena, baiña, orreri, euskera-ondatzaille orreri, jarraitzen dautsen *abertzaleak* be ba-doguz, zoritxarrez; zentzun gitxikoak be ba-dira, ba gure artean...

Euskaldunok beti izan gara demokratik eta askatasun-

zaleak. Ze eskubide dabe, ba, barrikeri gauzetan ori goitik bera, indarrez, erriari ezarri guraz ekiteko? Ez dau inok ez ezelango erakundek ezelako eskubiderik benetako euskaldunokaz olan, zitalki ta begiramen bagarik jokatzeko.

Orreik darabilen euskera-erdera barragarria entzutekotan, Irrati naiz Iratikuskiñaren txaranbela itxi eta erderazkoa entzuten eta ikusten asten dira benetako euskaldunak. Norentzat diardue, ba? Eurak lango beste- iru-lau euskal-sen bagako euskera gaiztodun lorrin-zaleentzat. Euskerea zabaltzen diarduelakoan, ondatsen, erailten diardue, ba.

Atxe-ari damotse errua, askok; baiña nire eritxiz, orixe dogu gitxiena. Urrengo belaun-aldiak ikusi dagien alperreko izkia dala, berez-berez baztertuko dabe. Alperriko izki urkulu oru baiño naste andiagorik ba-dabe bai aditz-erabilkeran, bai itzetan, berbak ebagikeran, joskeran eta abar eta abar.

Ez gaitzean larregi estutu, ba, bizkaiera-zeleok. Ekin daiogun geure euskera erritar eta benetakoa idazten, irakurten, itz egiten eta indarbarritzen; gero ta gero be, Bizkai'ko euskera sendo baizen giartsu eta gipuzkera samur ta gozatsua alkartasunetik urten dagike euskerearen benetako batasunak, idazleen egitez eta ekitez.

Parantze-peko euskaldunak, eurenari jarraitzen dautsoe zintzo, ganorabakoerieri jaramonik egin bagarik. Geuk bere gogotsu joka dagigun, erriko berbeta garbiaren alde. Eraso gogor aurka egin dagigun gogaitzeke, geure almen guztiakaz, ba. Aurtera adoretzu, erria zeure alde daukagu-ta.

Aurre-Apraiiz